

## Elgoibarko Udalak 19.270.000 euroko aurrekontua onartu du 2023rako

Supone un incremento del 8,85% respecto a 2022, un millón y medio más.



**Elgoibarko Udalaren helburu nagusiak bi dira: herritarren ongizatea bermatu eta bizi kalitatea hobetzen jarraitzeko pausuak ematea, eta bestetik, herri aurreratua eraikitzen jarraitzea, bai alor sozialean, ekonomikoan zein jasangarrizan, zerbitzu oro mantendu eta hobetuz.**



# Elgoibarko Udalak 19.270.000 euroko aurrekontua onartu du 2023rako

## El Ayuntamiento de Elgoibar aprueba para 2023 un presupuesto de 19.270.000 euros

**E**lgoibarko Udalaren helburu nagusiak bi dira: herritarren ongizatea bermatu eta bizi kalitatea hobetzen jarraitzeko pausuak ematea, eta bestetik, herri aurreratu eraikitzen jarraitzea, bai alor sozialean, ekonomikoan zein jasangarrian, zerbitzu oro mantendu eta hobetuz.

Ane Beitia alkateak azaldu du "herritarrak babestu eta Elgoibarren garapen integrala dute helburu, ausartak dira, baina ziurgabetasun handiko une bati erantzuteko landu ditugu zuhurtzia osoz. Pandemia, Errusiak bultzatutako Ukrainaren inbasioa, inflazioa... herri bezala zuzenki eragiten digute, eta aurrekontu honek egoera horien aurrean babesteko neurriak jasotzen ditu: elgoibartarrak dira erdigune eta beren onura eta ongizatea du helburu nagusi".

Beitiak azaldu zu ziklo bat borobiltzen duten aurrekontuak direla: "ziklo bat itxi eta aro berri bat zabaltzen dute. Gizarte zerbitzuak eta sustapen ekonomikoa bultzatzeko ekimen eta proiektuak indartu dira, eta proiektu estrategikoei bidea eman: hala nola, Arriaga industriagunearen birmoldaketa amaitzen dugu, King Kong zubiaren eraberritzea hartzen du bere baitan, trantsizio energetikoan LED sistemadun luminarien ezarpenarekin egiten du nabarmen aurrera edota plaka fotovoltaikoen sustapena, kirol azpiegitura eraiki berrien martxa bermatzen du, kulturaren aldeko apustua, Errotaberri edo Urazandiko igogailu sistemak, gizarte zerbitzuei eman diegun bultzadarekin jarraitzen du Eguneko Zentroaren eskaintza-zabalpenarekin... asko dira eredu. Ziklo oso aberasgarria proiektuei erreparatuz, zaila ere kontestuagatik, baina Elgoibar hobe bat egin dugu, eta jarraituko dugu egiten. Proiektu ugari idazketari egiten die bide aurrekontu honek, Eskola zaharren eraisketak esaterako, edota Errezabal zaharren egoitza berria edo ambulatorio berria. Ziklo bat borobildu du, baina 2023ko aurrekontuak Elgoibar berri bati emango dio bidea, bereziki gizarte ongizatearen alorrean edota irisgarritasun eta herriko gune ugari berronertzean".



**2022koarekin alderatuta % 8,85eko igoera izango du. Gobernuko bi alderdien babesa izan dute kontuek, EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (1), Elkarrekin Podemosen abstentzioa (1) eta EH Bilduko zinegotzien kontrako botoa (7).**

**Tendrá un incremento del 8,85% respecto a 2022. Las cuentas contaron con el apoyo de los dos partidos de Gobierno, EAJ-PNV (8) y PSE-EE (1), la abstención de Elkarrekin Podemos (1) y el voto en contra de los concejales de EH Bildu (7).**



**L**os objetivos principales del Ayuntamiento de Elgoibar son dos: dar pasos para garantizar el bienestar de la ciudadanía y seguir mejorando su calidad de vida, y por otro, seguir construyendo un municipio avanzado, tanto en el ámbito social, económico como sostenible, manteniendo y mejorando todos los servicios.

La alcaldesa, Ane Beitia, destaca que "protegen a la ciudadanía y tienen como objetivo el desarrollo integral de Elgoibar, son valientes, pero los hemos trabajado con la máxima prudencia para responder a un momento de gran incertidumbre. La pandemia, la invasión de Ucrania de Rusia, o la inflación nos afectan directamente, y este presupuesto incluye medidas de protección ante estas situaciones: las y los elgoibarreses son el centro y su principal objetivo es su beneficio y bienestar".

Beitia explica que son presupuestos que redondean un ciclo: "cierran un ciclo y abren una nueva etapa. Se han reforzado las iniciativas y proyectos para impulsar los servicios sociales y la promoción económica, dando paso a proyectos estratégicos como la culminación de la remodelación del complejo industrial Arriaga, la reforma del puente King Kong, el avance en la transición energética con la implantación de luminarias con sistema LED o de placas fotovoltaicas, nuevas infraestructuras deportivas, la apuesta por la cultura, el sistema de ascensores de Errotaberri o Urazandi... Un ciclo muy enriquecedor atendiendo a los proyectos, difícil también por el contexto, pero hemos construido un Elgoibar mejor, y lo seguiremos haciendo. Este presupuesto da paso a la redacción de numerosos proyectos, como los derribos de las antiguas Escuelas, la nueva residencia Errezabal o el nuevo ambulatorio. Culmina un ciclo, pero el presupuesto de 2023 da paso a un nuevo Elgoibar, especialmente en el ámbito del bienestar social o en la regeneración de numerosas zonas de la localidad".

## SARRERAK ENTRADAS

19.270.000 €

Zerga zuzenak  
Impuestos directos

3.461.085,69 €

Zeharkako zergak  
Impuestos indirectos

300.000 €

Tasak eta bestelako sarrerak  
Tasas y otros ingresos

2.616.282 €

Transferentzia arruntak  
Transferencias corrientes

10.775.000 €

Ondare sarrerak  
Ingresos patrimoniales

12.000 €

Ondasunak besterentzea  
Enajenación de bienes

50.000 €

Kapital transferentziak  
Transferencias de capital

853.123,23 €

Finantza aktiboak  
Activos financieros

51.000 €

Finantza pasiboak  
Pasivos financieros

1.146.258,98 €

## GASTUAK GASTOS

19.270.000 €

Langileen ordainsariak  
Retribución del personal

5.196.384,62 €

Ondasun arrunten eta  
zerbitzuen erosketak  
Compra de bienes  
corrientes y servicios

8.330.935,96 €

Finantza gastuak  
Gastos financieros

7.710 €

Transferentzia arruntak  
Transferencias corrientes

2.928.421,42 €

Kreditu globala  
Crédito global

0 €

Inbertsio errealak  
Inversiones reales

2.750.297,90 €

Kapital transferentziak  
Transferencias de capital

0 €

Finantza aktiboak  
Activos financieros


51.000 €

Finantza pasiboak  
Pasivos financieros

0 €

### Udalaren estrukturari erreparatuz, honela banatzen da aurrekontua:


Atendiendo a la estructura municipal, el presupuesto se distribuye de la siguiente manera:



#### HERRITARTASUNA CIUDADANÍA

6.350.136,87 €


Sustapen ekonomikoa, bizikidetzaz, parte-hartzea, Lagunkoia eta obra ugari.  
Promoción económica, convivencia, participación, Lagunkoia y numerosas obras.



#### LURRALDEA TERRITORIO

7.762.570,15 €

Hirigintza eta lan guztiak herritartasuneko obrak kenduta.  
Urbanización y todas las obras menos las obras de ciudadanía.



#### ANTOLAKUNTZA ORGANIZACIÓN

5.156.416,88 €


Udal sailak.  
Áreas municipales.

2023an Udalak ez du tasa eta zergarik igo: "Udalaren finantza egoera onak Covid-19aren pandemian babes neurri garrantzitsuak abian jartzea ahalbidetu zigan; 2023an, herritar zaugarrienei prezioen gorakadari aurre egiteko laguntzak indartu ditugu. Diru publikoaren kudeaketa zuhurra baina ausarta gauzatzen ari gara".

En 2023 el Ayuntamiento no ha subido tasas ni impuestos: "la buena situación financiera del Ayuntamiento nos permitió poner en marcha importantes medidas de protección durante la pandemia del Covid-19; en 2023 hemos reforzado las ayudas para hacer frente al alza de precios dirigidas a la población más vulnerable. Estamos llevando a cabo una gestión prudente pero valiente del dinero público".

////////////////////////////////////  
**Inbertsioetara ia  
2.691.000 euro  
bideratuko dira  
Elgoibar hobetzen  
jarraitzeko**  
////////////////////////////////////

A las inversiones  
se destinarán casi  
2.691.000 euros  
para ofrecer un  
municipio más  
amable y accesible



King-Kong zubiko  
lehen fasea  
**870.000€**  
Primera fase puente  
King-Kong



**EKIOLA**  
(Trantsizio energetikorako  
eguzki kooperatiba)  
(Cooperativa solar para la  
transición energética)  
**40.000,00€**

Olaizagan plaka fotoboltaikoak  
jartzeko  
Para la colocación de placas  
fotovoltaicas en Olaizaga  
**60.000 €**



Usetxe kaleko eskolen  
eraisketa  
Derriba escuelas calle  
Usetxe **350.000 €**



Landa gunean egiteko  
inbertsioak  
Inversiones en medio rural  
**180.000 €**



Teknologia berriak  
Nuevas tecnologías  
**39.200 €**



Arriaga poligonoaren 3. Fasea  
Polígono Arriaga 3ª Fase  
**350.000 €**



Urazandiko biala  
Vial de Urazandi  
**350.000 €**



Hiri altzariak erosi eta berriztea  
Adquisición y renovación de mobiliario  
urbano  
**75.000 €**



Departamentos / Sailak

## Gizarte ongizatea, %7,6 gora

### El área de Bienestar Social sube un 7,6%



Gizarte Ongizatea bermatzera bideratuko da aurrekontuaren %7,6 egingo du gora, 1.788.804,23€. Bereziki abian jarri berri den Eguneko Zentroaren (442.404,80€) asteburuetako zerbitzua eta mendekotasuna duten edo arriskuan dauden adinekoentzat Autonomia Sustatzeko Zentro berria dira berritasunak aurrekontuan. Mantentze dira elkarteei bideratutako diru-laguntzak, etxez-etxeko laguntza zerbitzua (340.679€), gizarte larrialdietarako laguntzak (200.000€), pertsona nagusiei loturiko programak, bazterkeria egoerei loturiko aktuzioak edota osasun programak.

Se destinará a garantizar el Bienestar Social un 7,6% más de presupuesto, 1.788.804,23 € en total. El servicio de fin de semana del recién puesto en marcha Centro de Día (442.404,80 €) y el nuevo Centro de Promoción de la Autonomía para personas mayores dependientes o en riesgo son las novedades presupuestarias. Se mantienen las subvenciones a asociaciones, servicio de ayuda a domicilio (340.679 €), ayudas de emergencia social (200.000 €), programas relacionados con personas mayores, actuaciones relacionadas con situaciones de exclusión o programas de salud.



# Sustapen ekonomikoa ere giltzarri

## La promoción económica también es clave

Sustapen ekonomikoko sailak ia %20 ko igoera izango du 2023an, guztira 330.399,93 euro. Nabarmentzekoak bertan AIZU ostalari elkartearekin sinatuko den hitzarmena, 20.000 euroko laguntzarekin (iaz lehen hitzarmena sinatu zen 5.000 euroko partidarekin). Bestalde, merkataritzak ere pisu garrantzitsua izango du eta %59 haziko da aurrekontua, 50.000 eurotara igoz.

El departamento de promoción económica experimentará un incremento de casi el 20% en 2023, con un total de 330.399,93 euros. A destacar el convenio que se firmará con la asociación de hostelería AIZU, con una ayuda de 20.000 euros (el año pasado se firmó el primer convenio con una partida de 5.000 euros). Por su parte, el comercio también tendrá un peso importante y el presupuesto crecerá un 59%, elevándose a 50.000 euros.



# Herria, herritarrekin bat

## En sintonía con la ciudadanía



Udalak herriko elkarte, eragile eta erakunde ezberdinei ematen zaizkien diru-laguntza guztiak areagotu ditu: Gizarte zerbitzuak, Kultur laguntzak, Euskara alorreko eragileak, herri hedabideak, berdintasuna edota hezkuntza, esaterako.

Gazteei begira ere etxebizitzaren inguruan Udala lantzen ari den diagnostikotik eratorritako neurriak abian jartzeko diru-poltsa mantendu du. 2022an amaituko den 2023-27 Emantzipazio Planak gidatuko ditu hurrengo pausuak.

Gazteek etxebizitzaren alokairurako gastuak ordaintzen laguntzeko dirulaguntzak (30.000€) mantenduko dira eta etxebizitzaren hobekuntzak (igogailu, fatxada...) egiteko 120.000€ egongo dira.

Horrez gain, merkataritza eta ostalaritza bultzatzen jarraitzeko helburuz, sustapen kanpainak mantenduko dira, eta negozio berriak zabaltzeko diru-laguntza lerro berri bat jarriko da abian.

El Ayuntamiento ha incrementado todas las subvenciones que se conceden a diferentes asociaciones, agentes e instituciones del municipio: Servicios Sociales, Ayudas Culturales, Agentes del ámbito del euskera, medios de comunicación, igualdad o educación, entre otros.

También de cara a los jóvenes ha mantenido el presupuesto para poner en marcha las medidas derivadas del diagnóstico que está trabajando el Ayuntamiento en materia de vivienda. El Plan de Emancipación 2023-27, que concluirá en 2027, guiará los siguientes pasos.

Se mantienen las ayudas para que los jóvenes contribuyan a sufragar los gastos de alquiler de las viviendas (30.000 €) y se destinan 120.000 € a mejoras de las viviendas (ascensor, fachada).

Además, con el objetivo de seguir impulsando el comercio y la hostelería, se mantendrán las campañas de promoción y se pondrá en marcha una nueva línea de subvenciones para la apertura de nuevos negocios.



## Elgoibar berdeagoa egiteko bidea lantzen

### Trabajando en un Elgoibar más verde

Udalak hainbat eta hainbat ekimen bultzatzen dihardu Elgoibarren trantsizio energetikoa bultzatzeko: "argiteria publikoa LED sistemaduna bihurtzeko lanak (230.000€. 2023an), eraikin publikoak jasangarriago egiteko pausu berriak (plaka fotovoltaikoen ezarpena udal eraikinetan 60.000€), energia berriztagarrien aldeko hobariak, EKIOLA energia kooperatiba abian jartzeko pausuk emango dira (40.000€ 2023an), eta jarraitzen dugu tinko bide horretan, baliabideen kontsumo arduratsua bultzatzeko, gure herria eta lurra jasangarriago bilakatuz. Horretaz gain, 2023rako bukatuta egongo dira Urruzunoko parke berdearen obrak, herritarren eskura beste parke berde zabal bat eta ortuak eskura jarritz.

El Ayuntamiento está impulsando diversas iniciativas para impulsar la transición energética en Elgoibar: obras para convertir el alumbrado público en LED (230.000 €. 2023), hacer más sostenibles los edificios públicos (implantación de placas fotovoltaicas en los edificios municipales 60.000 €), las bonificaciones a las energías renovables, la puesta en marcha de la cooperativa energética EKIOLA (40.000 € en 2023), y "seguimos firmes en este camino para impulsar el consumo responsable de recursos, haciendo más sostenible nuestro entorno. Además, para 2023 estarán finalizadas las obras del parque verde de Urruzuno, poniendo a disposición de la ciudadanía otro amplio parque verde y nuevas huertas".

## Kulturaz eta kirolez blai

### Más cultura y deporte

Kulturak garai zailak bizi izan ditu azken bi urteetan Covid-19aren ondorioz, baina Udalak apustu berezia egingo du, kultura suspertu eta kaleak berriz ere kolorez eta doinuz betetzeko. Sailaren aurrekontuak %15,15 egingo du gora, guztira 1.082.251,54€. Nabarmentzekoa auzoetako jaien partida. Iaz hirukoiztu egin zen eta aurten ere mantendu egiten da auzoetako jaiak sustatzeko.

Elgoibarko Udal kirol Patronatuari egiten zaion ekarpenak ere gorakada nabarmena izango du datorren urtean: %26,26 gehiago, 1.144.800 euro. 2021eko irailean Olaizagako Kiroldegiaren zabalpena bukatu zen. Bertako berrikuntza handiena 8 kaleko pista berria izan da, baita aldagelak ere. Handitze honek mantenimendu gastuak igo ditu, gastuen aurtengo igoeraz gain. Hori, tasa eta zergen izoztearekin bat, da aurrekontu igoeraren arrazoiak.

La cultura ha vivido tiempos difíciles en los dos últimos años debido a la pandemia del Covid-19, pero el Ayuntamiento hará una apuesta especial por revitalizar la cultura y volver a llenar las calles de color y música. El presupuesto del Departamento se incrementa un 15,15%, con un total de 1.082.251,54 €. A destacar la partida de las fiestas de los barrios. El año pasado se triplicó y este año también se mantiene para promocionar las fiestas de los barrios. La aportación al Patronato Municipal de Deportes de Elgoibar también experimentará un notable incremento el próximo año: un 26,26% más, 1.144.800 euros.

En septiembre de 2021 finalizó la ampliación del Polideportivo de Olaizaga. La mayor novedad local ha sido la nueva piscina de 8 calles, así como los nuevos vestuarios. Esta ampliación ha incrementado los gastos de mantenimiento, sumado a la subida de gastos de suministro de este año. Esta, junto con la congelación de tasas e impuestos, es la causa del aumento presupuestario.



### Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga

**Borondatezko epea:** martxoaren 1etik maiatzaren 2ra.

### Zaborren gaineko Tasa

•1. seihilekoa

**Borondatezko epea:** martxoaren 13tik maiatzaren 12ra.

•2. seihilekoa

**Borondatezko epea:** urriaren 2tik abenduaren 4ra.

### Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ)

**Borondatezko epea:** maiatzaren 15tik ekainaren 30era.

### Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ)

**Borondatezko epea:** urriaren 2tik azaroaren 10era.

### Espaloiaren gainetik ibilgailuak finka barruetara sartzea

**Borondatezko epea:** urriaren 2tik abenduaren 4ra.

### Auto-taxien urteko lizentzia

**Borondatezko epea:** urriaren 2tik abenduaren 4ra.

### Erabilera publikoko lursailak mahai eta mahaitxoekin, aulkiekin edo antzekoekin okupatzea

•1. seihilekoa.

**Borondatezko epea:** otsailaren 1etik martxoaren 31era.

•2. seihilekoa.

**Borondatezko epea:** urriaren 2tik abenduaren 4ra.

### Udalaren Merkadilloko salmenta postuak

•1. seihilekoa.

**Borondatezko epea:** otsailaren 1etik martxoaren 31era.

•2. seihilekoa.

**Borondatezko epea:** urriaren 2tik abenduaren 4ra.

### Azoka Plazako postuen alokairua

•1. seihilekoa

**Borondatezko epea:** otsailaren 1etik martxoaren 31era.

•2. seihilekoa.

**Borondatezko epea:** urriaren 2tik abenduaren 4ra.

### Jabari publikoa hainbat instalaziorekin okupatzeagatiko Tasa (Kutzazainak).

**Borondatezko epea:** urriaren 2tik abenduaren 4ra.

### Impuesto sobre vehículos de tracción mecánica

**Periodo voluntario:** del 1 de marzo al 2 de mayo.

### Tasa de Basuras

•1er. Semestre.

**Periodo voluntario:** del 13 de marzo al 12 de mayo.

•2. Semestre.

**Periodo voluntario:** del 2 de octubre al 4 de diciembre.

### Impuesto sobre Bienes Inmuebles (IBI)

**Periodo voluntario:** del 15 de mayo al 30 de junio.

### Impuesto sobre Actividades Económicas (IAE)

**Periodo voluntario:** del 2 de octubre al 10 de noviembre.

### Entrada de Vehículos al interior de las fincas a través de las aceras

**Periodo voluntario:** del 2 de octubre al 4 de diciembre.

### Mantenimiento anual de licencia de auto-taxi

**Periodo voluntario:** del 2 de octubre al 4 de diciembre.

### Ocupación de terrenos de uso público municipal con mesas, veladores, sillas o instalaciones similares

•1er. Semestre.

**Periodo voluntario:** del 1 de febrero al 31 de marzo.

•2. Semestre.

**Periodo voluntario:** del 2 de octubre al 4 de diciembre.

### Puestos de venta ambulante en el Mercadillo municipal

•1er. Semestre.

**Periodo voluntario:** del 1 de febrero al 31 de marzo.

•2. Semestre.

**Periodo voluntario:** del 2 de octubre al 4 de diciembre.

### Alquiler Puestos Plaza de Mercado

•1er. Semestre.

**Periodo voluntario:** de 1 de febrero a 31 de marzo.

•2. Semestre

**Periodo voluntario:** de 2 de octubre a 4 de diciembre.

### Tasa Ocupación del dominio público con instalaciones diversas (Cajeros).

**Periodo Voluntario:** del 2 de octubre al 4 de diciembre.